

Bezeroarekiko harremana

Bezeroak erakartzeko publizitatea erabiliko dugu, hainbat sare sozialetan zabalduko dugu gure zerbitzuaren gaineko informazioa eta gainera aplikazioa deskargatzeko aukera izango dute. Paperean ere hainbat eskuorri sortuko ditugu bezeroen artean zabaltzeko.

Bezero asko ikasleak direnez, eskualdeko eskola eta ikastoletara joango gara beraiei azalpenak ematera eta eskuorriak banatzera.

Gure bezeroak bi motatan banatuko dira. Lehen mota, gazteak izango dira, lan egiteko prest daudenak ikasten dauden bitartean. Hauek, lan ordu murriztuetan jardungo dute.

Bigarren mota, enpresa txikiak dira, hauei gure aplikazioaren bitartez langileak emango baitiegu enpresa horietan lan egin dezaten. Hala nola, tabernetan, arropa dendetan, produktuak saltzeko dendetan, gehien bat ostalaritzan, eta baita ere, umeak zaintzeko lan desberdinetan.

